

OLERTI-EGUNA (Larran'n, 1993-9-11)

ASPALDIKOA

Urteak dira, urte asko, Larra'n eta Aita Santi Onaindia'ren ardurapean Olerti-Eguna ospatzen dala. Eta ez eguna ospatu bakarrik, olerkirik one-nakaz OLERTI aldizkaria argitaratu be bai, azke-nengo urteetan Eusko Ikaskuntzaren laguntzaz.

Ekintza txalogarri onen elburua olerkariak sor-tzea eta elerti-mota onetarako zaletasuna zabaltzea da, eta lortu be egiten dala uste dogu.

Urteen joanean egun au Kristo Errege'ren jaian egiten izan da, antxiña urrillaren azkenengo igan-dean eta gero, jai-eguna aldatu zalako, azillaren aazkenengo igandean.

Igaz ez zan egin, Aita Santi bera gaisorik egoa-lako, eta aurten be antzeko zioagaitik aurreratu egin bear izan da. Iraillaren II'n egin dogu.

AURTENGO OSPAIZUNA

Eguna aldatu dalako edo larunbatez izan dala-ko, gitxi izan gara ospakizun onetara urreratu ga-ranak.

Ni neu joan al izan naz, larunbatez izan dalako, guk igandeetan lan egiten dogu-ta, baiña bear ba'da, beste batzuk orrexegaitik ezin etorri izango ziran. Dana dala, ba-leiteke larunbatez egitea oba-tzat artu-bearra.

Saridun bi izan dira: Lirika-saillean Zubikarai'tar Augustin eta dramatika-saillean Aurre Apraiz'tar Ba-lendin. Olerki biak dira ederrak. Aurre Apraiz' ek bizi-bizi agertzen dau guda-giroa, izan be arazo orretan sakon sartuta ibillia zan-eta. Augustin'en olerkiak ez dauko olan gai berezirik, baiña olerki ederto egiña, polita, trebidez ondo omidua da.

Zoriona olerkari bai!

Eta urrengo urterako gertatu besteok!

AURRERANTZEAN

Laguntzailleak izan dira, batez be epai-maian eta olakoetan, baiña lanik geiena Aita Santi'ren le-poan izan da. Aita Santi urteetan aurrera joan jaku eta osasuna be ez dau beti nai leuken bestean ona izaten. Gaiñera urteen joanean gomutapena be joan egiten da; orregaitik, egun au eratzea eta al-dizkaria ateratea erakunde batek artu bear leuke bere gain. Orretarako egokienak, jakiña, karmel-darrak litzakez. Karmel aldizkariaren inguruan da-biltzanak, eta bide orretatik arazoa bideratzea eziña ba'litz, beste erakunde batzuk Kardaberaz, Euskerazaintza, Euskerazaleak... ez leuke itzi bear ekintza eder au galtzen.

Olerti-eguna ta aldizkaria ez daitezela galdu!

OLAZAR'tar Martin'ek

B IZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**
Kultura Saila